

Zeberioko Udalak, 2020ko uztailaren 9an egindako Ezohiko osoko bilkuran, Adierazpen Institutuzional hau onartu eban:

### **“EUSKARALDIA SUSTATZEKO ADIERAZPENA**

Zeberioko Udalak, erakunde lez, parte hartuko dau Euskaraldiaren bigarren edizinoan.

Euskeraren erabilera indartzeko udagoiengan gauzatuko dan Euskaraldiaren bigarren edizinoa berrikuntza nagusi bategaz dator: norbanakoez ganera, erakundeek be zuzenean parte hartu ahal izango dabe, erakunde barruan “Ariguneak” sortzea bultzatuz. Zeberioko Udalak be, erakunde lez, parte hartuko dau.

Horregaz, honako konpromisoak hartzen dauz Zeberioko Udalak Euskaraldia bultzatzeko:

- Zeberioko Udalbatzak bat egiten dau Euskal Herri osoan zehar bideratuko dan Euskaraldiagaz, 2020ko zemendiaren 20tik abenduaren 4ra, eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen dau.
- Zeberioko Udalak, erakunde lez, Euskaraldian izena emongo dau, horretarako beharrezko Ariguneak identifikatuz eta bultzatuz.
- Udalkide, herritar eta herriko eragileei dei egiten deutse urtean zehar izango diran prestaketa lanetan parte hartu daien eta, bere garaian, “ahobizi” eta “belarriprest” izan daitezcan eta Ariguneetan parte hartu daien.
- Ordezkarari politikoaren egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan, eta bereziki, Udalean eta Udalaren ardurapeko erakundeetan ekimena zabaltzea. Horrenbestez,
  - Ekimen honetan ahalik eta Arigune gehien, eta “ahobizi” eta “belarriprest” gehien aktibetako urratsak emongo dabez, arduradun politikoak izan nahiz langileakizan.
  - Bilkura eta Batzordeetan, ohikoa dan lez, euskara lehenesteko konpromisoa.
  - Udal agerraldietan, beti egiten dan lez, euskara lehenesteko konpromisoa.
  - Euskara Plana garatzen jarraitzeko konpromisoa.
- Zeberioko Udalak, herriko eragileakaz batera, neurriak hartuko dauz hizkuntza praktika horreek posible izan daitezcan eta praktika horreei etorkizunean eutsi ahalizateko.”